

ALKATE DEKRETUA

2025eko urtarrilaren 31n, Nekane Artola Labordeta andereak, KILOMETROAK KULTUR ELKARTEAREN izenean 2025-575 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarra Udalean.

Aipatutako eskaera bidez, Elgoibarko Ikastola 2025. urtean antolatuko duen KILOMETROAK jaialdia diruz laguntzea eskatu dio Ibarra Udalari.

2024ko martxoaren 21ean egindako Ibarra Udalbatzaren ohiko osoko bilkuran, besteak beste 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoa onartu zen. Bertan, euskara alorreko dirulaguntzei dagokionez, 2025 urterako, KILOMETROAK antolatzen dituen ikastolarentzat 800 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusten da. Dirulaguntza hori gain hartzeko, Ibarra Udalak 1 10.335.00.481.03 2025 kontu saila du.

Kilometroak jaia ikastolen jarduna gizarteratu eta proiektu jakinak finantzatzen laguntzeko antolatzen da. Jakina denez, Elgoibar ikastola irakaskuntza kooperatiba euskalduna, aspaldi ari da beren zerbitzua Elgoibar eta inguruko herriko herritarrei eskaintzen. Pedagogia berritzaile eta aurrerakoa izan da ikastolaren ikurretako bat, bereziki azken urte hauetan. Hori dela eta, zerbitzu horien ezaugarriak gizarteratu eta etorkizuneko proiektuak bermatzeko ahalik eta babes handiena lortu nahiko lukete. Horregatik, Ikastolaren komunitatea sendotzea eta euskararen erabileran beste urrats bat ematea dira "kilometroak 2025" honetarako Elgoibar Ikastolak jarritako helburuak.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24. artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikulua araberak esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA. Dirulaguntza izendun moduan ematea Kilometroak delako Gipuzkoan euskalduntasuna eta euskal kultura, administrazioekiko elkarlanean eta hezkuntza-komunitate osoa bilduz, sustatzen dituen jai bakarra.

BIGARRENA. Ematea 800 euroko dirulaguntza Kilometroak Kultur Elkarteari, euskara, kulturartekotasuna, eta herrigintza sustatzea helburu duen ekimena antolatzeko. Eta, kontu zenbaki honetara ordaintzea: ES22 3035 0235 2223 5003 5198.

HIRUGARRENA. Aipatu kopurua 2025eko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.03 2025 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarreretik bateragarria izango da, berdin dio zein administrazioetik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da.

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko Kilometroak Kultur Elkarteak honakoa aurkeztu beharko dute 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen:

- a. Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.
- b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen honen berri udalbatzari ematea egiten duen hurrengo lehen osoko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan

Nekane Lazkano Prieto

Alkateordea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025WDIZ0003-Dekretua_OR/Decreto_GE (KILOMETROAK KULTUR ELKARTEA)